

Nu!



Mikel Urdangarin,
azaroaren 19an Usurbilen



70 urte bete ditu
sendategiak

Oliba Olio Kosmetika Naturala

lixóné
Cosmética Natural



Gipuzkoan egindako produktuak Alkartasuna kooperatiban zure eskura

Oliba olioz eginiko produktuak:

- * Xanpua
- * Gela
- * Ile egokitzailea
- * Esku eta azazkalentzako krema
- * Gorputzerako Krema
- * Jaboia
- * After Suna
- * Belzteko krema intentsiboa
- * Belzteko krema protekziodunak

Oliba olio birjin-extraz eginiko produktuak:

- * Krema hidratantea
- * Zimurren kontrako krema

Alkartasuna
Nekazal kooperatiba elkarte

Ugarte Industrialdea 12
Tinoa. / Faxe: 943 361 114
21070 USURBIL Gipuzkoa
alkartasuna@usurbil.com

Txirrikitutik !

Gizartea aldatzen doan neurrian, kale garbitzaileen lan egiteko modua ere aldatzen joan da. Gaur egun, Usurbilen behintzat, ez dugu argazkian agertzen den moduko kale garbitzailerik ikusiko. Lehen isiltasunean aritzen ziren (beno tarteka goizak txistu doinuekin alaitzen zizkigutenak baziren) erratza, pala eta zabor ontziarekin batetik bestera kale bazterrak garbitzen. Orain berriz, erabiltzen dituzten makinak tarteko, hauen presentzia nabarmena da, nabarmenegia. Ateratzen duten zarata izutzeko modukoa da, izugarria. Halako kutsadura akustikorik! Hor ibiltzen dira goiz goizetik zakarrak batetik bestera aineratuz, harik eta gehienak batera pilatu eta gurpildun makina zabor-jaleak irentsi ditzan. Eta inor ez dadila pasa aldamenetik, bestela akabo!

Argazkia 1983ko Santixabeletan atera zen. Gure protagonista gaueko parrandazaleek utzitako zikinak jasotzen ari da, baina argazkia ateratzen ari zaizkiola ohartu eta zabor ontziaren atzean ezkutatu zaigu.



Egilea: A.P., 1983, Kaleberria
Jabetza: A.P.

Zalao Arnaiz Iburguren

N u !

Argitaratzailea: NOAUA! Kultur Elkartea
Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil (Gipuzkoa)
Tlf.: 943 36 03 21 / elkartea@noaua.com
www.noaua.com

Koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Publizitatea: Maider Alustiza, publizitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbieta, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Zalao Arnaiz, Jakoba Errekondo, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai. Denborapasak: LUMA, O.E.

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkartea@noaua.com

Bazkidetza: Aitziber Aranberri.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Zalao Arnaiz, Maider Alustiza, Agurtzane Solaberrieta, Joxe Luis Arrastoa, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketak: Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo.

Elektrikaria: Iñaki Salsamendi.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza.

NOAUA! hamaboskariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

NOAUA! Kultur Elkarteko jendaurreko ordutegia:
10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

AZALA

Bi argazkien artean 70 urteko aldea dago.

Aurkibidea

ZUTABEAN, NEREA ZINKUNEGI _____ 4. ORR.

UDAL LIBURUTEGIA, LASTER ZBALIK _____ 10. ORR.

IÑAKI MUJIKAREKIN SOLASEAN _____ 11. ORR.

Lanbide Heziketakozuzendaria izan zen aurreko legegintzaldian. Berriki, Hezkuntza Saileko sailburuorde izendatu dute.



70 URTE BETE DITU SENDATEGIAK _____ 12. ORR.

KAIERA IBILTARIA HEMEN DA _____ 15. ORR.

MIKEL URDANGARINEN BISITA _____ 16. ORR.

ANTENA BERRI BAT ANDATZA MENDIAN _____ 17. ORR.

AGENDA, DEIALDIAK _____ 22. ORR.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria

Euskal presoak



Euskal Herra!

Zutabea !



NEREA ZINKUNEGI

50.a

Zenbaki bat besterik ez da idatzi honen izenburuan... eta egunkarian... eta teleberrian... eta irratian. Izenik ez du aipatu kazetariak (kazetaria beraren izena aipatzeak ere agian ez du merezi), zenbakia berak pisu handiagoa du aidanean. Hori bai, Barakaldon izan da, hemen, etxe inguruan. Etorkina agian, pentsatuko du batek, (badakizu, Barakaldo!) euskaldunon sasi-lasaitasunerako. Euskaldunak agian, izan, tamalez, badira eta.

Berrogeita hamargarrena da, bi mila eta bostgarren urteko hamargarren hilabeteko hamairugarren egunean, bere bikote, bikote-ohi, senar, seme, koinatu edo dena delakoak akabatu duen emakumea, estatu mailako kopuruen artean.

Hilotza segundu erdian ahazten den kopurua besterik ez da, negar malkotan erdibitzen den familiarteko edo lagunentzat izan ezik.

Zartaka, kolpeka, tiroz, labankadaz, itota, su emanda... idaztea, irakurtzea, pentsatzea eta aipatzea, zer esanik ez, deserosoa gertatzen da. Gorrotoa esnatzen zaio

bati berri zaharraren aurrean, hitz pozointsuak totelka, ezkutuko instintoak agerian... hiltzailea potrotatik harrapatu eta bertatik zintzilikatzeko gogo hustela...

Genero indarkeria...ja! Terrorismo soziala, kulturala eta zergatik ez, erlijiosoa! Han eta hemen, egunero-egunero, ematen dena. Maila sozial, ekonomiko eta kultural guztietan presente, ageriago batzuetan, ezkutuago besteetan. Mila kilometrotara zenbaitzutan, mila milimetrotara besteetan.

Bilduko dira hurrengo egunean izenik gabeko emakumearen ingurukoak pankarta baten atzean inongo udal-txearen aurrean eta emakumeak izango dira gehienak. Eta bitartean, lantokian, bazkalostean, lagunartean, igo-gailuan edo beste inon, emakume izena daraman fenomeno meteorologiko neurri gabekoei buruz mintzatuko gara erosoagoa delako, gizakiak hoiaren aurrean ezer gutxi egin dezakelako.

Idatzi hau ahal dudana neurrian txukuntzen ari naizela 51.a izan litekeenaren berri ematen ari da irratia, neska gazte baten bila dabiltza Bakio inguruan, hementxe, etxe inguruan, mila milimetrotara...

Ainhoa Azpiroz - Aitor Landaluze - Jakoba Errekondo - Luis Aranalde - Nerea Zinkunegi - Idoia Torregerai

NOAUA!ko bazkide egiten bazara, liburua musu-truk


Iazko abenduan plazaratu genuen "Usurbilgo baserriak eta baserritarrak" liburua. Izugarritzko estimazioa izan zuen. Ordutik ale asko saldu dira baina oraindik eskuragarri dago. Dena den, NOAUA!ko bazkide egiten bazara, doan jasoko duzu liburua. Beraz, zeren zain zaude?

Josu Tellabidek idatzitako liburua balio handiko argitalpena da. Baserri-katalogo hutsetik haratago doan liburua. Baserritarren bizimodua islatzen saiakera handia egin baitzuen Josu Tellabidek. Idatziak zainduz, argazki ugari bilduz... Gainera, liburuan bildutako datu, argazki eta istorio asko gal-tzeaz zeuden. Liburua salgai dago

oraindik. 38 eurotan, hain zuzen. Baina eskaintza honi esker, doan jaso dezakezu liburua. Nola? Oso erraza da. NOAUA! Kultur Elkarteko bazkide egiten bazara liburua musu-truk eskuratuko duzu. Aldizkari honetan topatuko duzun bazkide txartela bete edota telefonoz deitu (943 360 321).

Bazkide direnentzat ere, eskaintza berezia

Jada bazkide direnentzat ere badugu oparirik. Orain arte, liburua askoz merkeago erosteko aukera izan dute. Liburua erosi duten bazkide horiei, orain, beste ale bat oparitutako diegu (bazkide bakoitzeko, bana). Hori bai, eskaintza hau ez da mugagabea izango.



Bazkide kanpaina honetarako bideratu ditugun aleak agortu arte iraungo du eskaintzak.

Ika-mika !**Usurbilgo udal agintariak ez dute langileekin hitz egin nahi**

Aurreko alean soldaten adibidea eman genuen. Gaurkoan beste datu batzuk eskainiko dizkizuegu. Udal agintariak eta langileak elkarrekin hitz egin nahi badute foro ugari erabil dezakete. Behin baino gehiagotan eskatu dugu Negoziazio Mahai Parekidea biltzea. Alferrik ordea. Pertsonal Batzordea ere ez da behar bezala biltzen. Jakina denez, udal guztietan biltzen da Pertsonal Batzordea, maiztasun jakin batekin. Usurbilgo Araudiak zehazten duenez, hilero bildu behar du Usurbilgo Pertsonal batzordea,

Alkateak deituta.

Errealitatea ordea ez dator bat Legediarekin. Udal korporazio berria osatu zenetik, 2003ko ekainetik gaur arte, bi urte eta lau hilabeteetan, 7 aldiz bakarrik bildu da Usurbilgo Udalaren Pertsonal Batzordea. 2005eko 9 hilabeteetan 2 aldiz besterik ez.

Nahi duenak bere kalkuluak eta konparazioak egin ditzan beste datu bat emango dugu. Aurreko korporazioa zegoenean 61 Pertsonal Batzorde bilera egin ziren 4 urteetan. Batzaz beste, 15 bilera urteko.

Garbi dago egungo udal agintariak ez dutela Araudia betetzen. Ezta beraiek beraien buruari ezarritakoa ere. Eta okerragoa dena, ez dute langileekin hitz egin nahi. Inposaketarik ez dugu onartzen. Gauzak hitz egin, negoziatu eta adostu egin behar dira.

Zer da hau? Alferkeria edo egoskorkeria? Edo biak batera?

Aitor Eleta, Begoña Rodriguez, Usurbilgo Udaleko langileen ordezkari-tzan.

Ika-mika !**Fantasiak eta gezurrak (I)**

Legealdia lasai samar doa, eta batzuentzat hori ezin eramana da. Arazoak ez dauden lekuan liskarrak asmatzea da batzuen denbora-pasa. Dinamika horren barruan dabilta, azken boladan publiko egin diren idatzi batzuen arabera, udal langile gutxi batzuk.

Hiru akusazio egin zaizkio alkateari eta bere gobernuari NOAUAREN ika-mika sailetik: langileei soldatak igo nahi ez izatea; erasoak eta jazarpenak daudela eta elkarizketaren ukazioa.

Udaletxe barruan giroa jasanezina dirudien arren, errealitatea oso bestelakoa da.

Langileen ordezkariak, erosteko ahalmena arriskuan dutela diote KPIa igotzea onartzen ez delako.

Argitu beharra dugu lehenik udal langileen ordezkariak LAB sindikatukoak direla. Sindikatu horrek 2005eko martxoko komunikatu publiko batean adierazi zuen ez zuela udaletxex udaletxe negoziatuko: "LABek ez du berriro ere lantokiz lantoki negoziatu nahi".

Une honetan, LAB, UGT eta CCOO sindikatuek Euskadiko Udalen Elkartearekin (EUDEL) negoziazio mahaia osatu dute eta negoziatzen ari dira. Alkatea negoziazio horren emaitzaren zain dago eta bertan onartzen dena asumitzeko prest dago. LAB EUDELekin negoziatzen aritzea eta gainera Usurbilgo Udalarekin

bere kabuz errenta gehiago atera nahi izatea ez zaigu bidezkoa iruditzen. Batean edo bestean, bietan ez.

Halere, alkatea prest agertu da soldatetan %2ko igoera aplikatzea aurrerapen gisa, negoziazioen azken emaitzen kalterik gabe. Horrela aurkeztu zen uztailearen 26ko plenoan. Batzarrera bertaratu zen langile taldearen bozeramaileak, hitzez hitz, %2ko aurrerapen hori ez zutela onartzen "huskeria" zelako adierazi zuen; eta gaia, mahai gainean geratu zen talde politiko guztien adostasunarekin, langile batzuen harridurarako.

Udal langileen ordezkariak urriaren 7ko NOAUAN publikatu zuten idatziaren bigarren zatiak, sinatzaileek duten gaurko egoeraren eramanazina islatzen du, eta garai zaharretako oroimena edo nostalgia. Hori da demagogian irrist egitea!

Korporatiboek, orduak eta orduak eskaintzen dituzte beren udal ordezkari-tza lanetan: batzorde informatiboetara bertaratu eta prestatuz, langile kontratazio tribunaletan eta horniketa kontratazio mahaietan parte hartuz, eta beste eratako hainbat eta hainbat bileretan. Bilerak bost minutu irauten dutela esatea gezur hutsa da!

Dedikatzen diren ordu guzti horietatik batzuk ordainduak dira, beste asko ez. Hori bai, langileen ordezkariak bere lan

arruntetatik at, beste udal zeregin guztietan eskeinitako orduak kobratzen dituzte. Zer esanik ez ordu sindikaletaz; 509 ordu 2004. urtean, eta 2005ean oraingoz 425 ordu. Udalak txintxo-txintxo ordainduak. Baina, legez eskubidea dutenez... ondo aprobetxatuak!, inoiz ez soberan!

Langile ordezkari hauek injustiziak aurkitu nahi badituzte begira dezatela beraien artean, aurkituko baitute norbait udal lanpostutik aparte beste soldatxoa pare bat jasotzen dituen. Sindikalista baten ejemplu ederra!

Bukatzeko. Zinegotzien arteko bazkariaren aipamena. Inbidia ote? Udal ordezkarien arteko harremanen normaltasunaren adierazgarri da eta batzuei izugarritzko tripako mina ematen diena. Aurreko korporazioei ezinezkoa egin zitzaiena posible bihurtu da legealdi honetan: urtean behin, herriko jaietan, zinegotzien arteko senidetza bazkaria egitea. Eta bai!, txanpaina eta guzti, normala den bezala, eta egun horietan herriko etxe guztietan egiten den bezala.

(* Idatzi honen luzapena mugatu digutenez, hurrengo alean argibide gehiago emanaz jarraituko dugu. Balizko eraso eta jazarpenei buruz, hain zuzen ere.

Usurbilgo Eusko Alkartasuna (EA)

IKA MIKA ATALEAN PARTE HARTU NAHI BADUZU, GOGOAN IZAN IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITUELA.

ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA,

NOAUA!k IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU.

NOAUA!k ez du bere gain hartzen **IKA MIKA** atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Hurrengo alea: azaroak 4. Idatzia ekartzeko **azken eguna:** urriak 28.



KOLDO
HUEGUN

Txokoalde

Ospakizunak ez dira amaitu

Kaixo berriro ere, auzotarrok: hemen natorkizue Kberriro ere aldizkari honen betelanetan. Hori uste dute behintzat zenbait herritarrek. "NOAUAKO kronistek ez zekitek urtaroa edo eguraldiaz besterik idazten". Alajaina! Zirrikituren bat utzi beharko zion morroi honi, bere urrezko letrek goza gaitzaten.

Ba hor doa beste bat eguraldiaz eta urtaroz. Orbelak dantzan dabilzan honetan, haizeak hara eta hona, Usurbilgo politikoa profesional buru-argi hauen ideiak bezalaxe.

Auzoan urteetan zehar, jasan behar izan dugun zabortege, eskonbrera eta kolore anitzetako ibaien garaiak berriro ere berpiztu nahian dabilzala dirudi etxe handi hortan, puntatik puntara auzoko mugetan mamuak bailira proiektu ankerrak bideratuz edo bultzatuz. Zubieta aldetik datoz ke usaia Donostiatik bidalita, eta alkatraz berri baten mehatua ere. San Estebango aldaparen erdi parean, Berritzagoiena baino beheragoxeago, Ingemarren harri bitxia, aspaldi itxita behar zuen eskonbrera, ahozko baimen baten ondorioz berriro ere martxan. Txokora jeitsi eta zer? Lanez gain alderik alde zulatuko duen trenbidea, eta zer eragin izango duen jakin-

go duzue noski, edo ez... Ez dizutela ezer esan... Eta auzoaren mugan, Izaio aldean arrauna aitzakitzat hartuz, Marbella txiki, ederra panorama. Eta oraindik auzoan etxebizitza berririk ez... Eskerrak batzuen agintaldia udazkenean sartzen ari den, eta haizeak sekulako aldunduko dituen.

Gaiaz aldatuz, esan Erroizpe elkarteko 50. urtemugaren ospakizunak ez direla amaitu. Frontoian egin genuen afariaren gain datorren astebukaeran mus txapelketa eta mendi martxa ditugu oraindik.

Mus txapelketa: urriak 22, larunbata. Izena emateko: 16:00-16:30 erroizpe elkartean. Bikoteko 20 euro. Sariak: Txapela, arkumea eta txanpaina lehenengoek; mariskada eta txanpaina bigarrenek, lau txuleta eta ardoa hirugarrenentzat eta lau kilo kostilla eta ardoa laugarrenentzat.

Mendi martxa: urriaren 23an, igandea. Irteera ordua 8:00etan Erroizpe elkartetik. Lau ordu inguruko ibilaldia. Ondoren hamaiketako.

Bestalde, eskerrak eman beharrean gaude Arruti harategiari, Ramon Kamino eta Akerra gaztetxeokoei eskeinitako laguntzagatik eta Usurbilgo udala eta Euskadiko Kutxari ere.



ENEKO
HARREGUY

Kaleberri

Arnasa ondo hartu

Egunerokotasunean olatu bat joan eta beste etorri dabilena, egunerokotasunaren ibilbide bera errepikatzen duena, egunerokotasunean arropa bera darabilena, egunerokotasunean bizidun berberekin mintzatzen dena... apurka-apurka bere burua urkatzen ez oten den ari...!

Telebistaren hatzparretan, behin eta berriz jausten dena, apurka-apurka ez oten den bere burua itotzen!

Leku ezezagunak ezagutzera bidaiatzen ez duena, musikaren melodia onenak bilatzera abiatzen ez dena, bere buruaren ona topatzen saiatzen ez dena...

Eguneroko lanean deseroso sentitzean aulkari bultzada bat ematen ez diona, itxaropenaren orde esperimentiak horrela erakusten diolako ametsen atzetik ibiltzen ez dena, aholku zentzudun bati, behin bederen, ihes egiten ez diona bere barren-barrengo tripak sumendi

baten laba bailitzan elikatzen dabil; eta...

Laguntzen uzten ez dena, amildegian behera bultzatzeko eskatzen ari da. Zorte txarraz kexaka ari dena, edo neguan euria baino egiten ez duela amesgaiztotzen duena... euri kopuru horrek itzali ezin dituen infernuko garretan blaituko da.

Egitasmoari ekin aurretik etsiari hartuta dagoena, ezjakintasunean galderarik sorteen ez zaionari edo dakienari buruz erantzun bat eman nahi ez duenari... galdera ikurraren malakoak zintzurretik oso gertu helduko dio.

Atzera begira, une gogoangarrietan pentsatu eta ondo pasatzen ez duenak, irakurtzen ez duenak... ez du bizi berdina bizitzen, (ez du bizitzen-eta!). Izan ditzakeen bizikizun batzuei uko eginez biziko da, behin bakarrik biziko da.

Gogora dezagun!, bizitzea zutik egon eta arnasa hartzea baino gehiago da. Inoiz ez da berandu.

Futbol zelai berria azkenean

Kaixo! Hementxe naukazue oraingoan ere Kauzoaren berri emateko asmoz. Aspaldian egin ez dudan bezala, oraingoan kexu bat dakart udalarentzat, Kalezar herritik gertu dagoen arren azkenaldian badirudi inoiz baino urrunago dagoela. Hau esan dut, auzotik errepide nagusira doazen eskilarak zikin zikinak daudelako eta zer esanik ez errepidean, behean, dagoen geltokia. Aurreko ale batean orain adierazi dudan kexu berbera aitortu nuen baina kasurik egin ez zidatenez berriro gai berdina aipatzera behartuta ikusi naiz. Espero dut oraingoan behintzat arazoa ikusita udalak zer-bait egitea.

Kexuak alde batera utzita, kontu pozgarriago

bat jakinarazi nahi dizuet. Badirudi azkenean Harane futbol zelaiaren konponketekin haste-koak direla. Gai hau ere aipatu nuen baina oraingoan xehetasun gehiago aipa ditzaket: konponketak sakonak izango dira, zelaiaz gain aldagelen eraikina ere guztiz berritzeko asmoa baitute eta berritze lan horiek bukatu artean herriko futbol taldeek Lasarte-Orian eta Hernanin egingo dituzte entrenamenduak.

Asteburutako etxeko partidak, orde, Zubietan izango dira, Realak entrenatzen duen lekuan. Beraz, badakizue, hurruxeago egon arren, orain, Zubietara joan behar duzue herriko taldeak animatzera. Besterik gabe, zintzoak izan eta hurrengorarte.

Kalezar



ALOÑA
PULIDO

Kaixo denoi! Lehenik eta behin, ongi eto-
rri gure auzoko kronista berriari, pozik hartzen ditugu horrelako sorpresak. Ea jende gehiago ere animatzen den, horrela erreleboa egiteko prest egongo ginateke.

Auzoari begirada bat emanez; esan beharrean gaude, "zaharrak berri" esaerak dioen bezala, betiko moduan jarraitzen dugula egoera gehienekin.

Hasteko, Orio aldera bagoaz autobus geltokiak estalkirik gabe jarraitzen du. Kontuan ian negua gainean dugula.

Basura poltsak edozein ordutan ateratzen ditu jendeak, axolarik gabe, zabarkeria geroz eta gehiagorekin. Horrela, katu mordo bat hurbiltzen da egunero poltsa guztiak zabalduz. Orduak errespetatzeko ez gabela gai dirudi. Gure esku dauden gauza hauek zuzentzeko

Zaharrak berri

"utziak gara benetan". Orduz kanpo ateratzean hortxe ditugu organiko ontziak, nahiz eta gure auzoan ez eduki. Ahalegin hori egin behar genuke, bestela hor egoten dira igandeetan ere poltsa guztiak zabalduta.

Beheko kalean, kotxez iristen garen bakoitzean, aparkatzeko lekurik ez badago, buelta emateko tokian kotxeak aparkatuta daude egunero: aurpegi galanta jendeak, Mahaspildegia aurrean nahikoa toki egonda.

Goiko kale aldera bagoaz, begiratu besterik ez dago, garai bateko parkeak nola dauden. Jarriz gero zaintzea ere bidezkoa litzateke, edo denak Kaleberriko parkeetan jolastu behar al dute?

Gaurko kexak, lehenago ere azaldutakoak dira. Ea kontuan hartzen ditugun denok, auzo hobetzeko osatzeko. Horregatik diot, zaharrak berri (guztion amorragarri).

Atxegalde



JONE
EIZMENDI



PAKO
AGUDO

Santutenea

Ikastaro ugari

Kaixo Berriro iritsi zaigu eskopeta eta otarren garaia. Urtero bezala, hego haizearekin batera usoak eta onddoak hurbiltzen zaizkigu eta hauekin batera ehiztariak eta perretxiku eta onddo biltzaileak. Askok dira gure auzoan ere hego haizearen zain egoten direnak urte guztian zehar bere jai egunak hartu eta Andatza aldera abiatzeko.

Eskerrak gure auzo honetan, garai hauetan ere, beste ekintzetarako zaletasuna ere piztu dela, bestela Andatza ez ginatke kabitu ere egingo! Dagoeneko lau yoga talde ditugu auzoan. Badirudi gure bizimodu eroetatik pixka bat alderatzeko aukera badela. *Sevillanak* dantzatzeko ikasteko aukera ere badago, auzotik atera gabe. Horretan ari dira hiru talde ezberdin buru-belarri. Gogoan dituzue salsa eta merenge ikastarok? Hauek ere martxan daude baina honetan arazoak izan dituzte taldea osatzerakoan. Beraz, hemendik animatzen zaituztet gorputza eta



burua askatzera eta gustuko badituzue aipatutakoak bertara hurbiltzera. Asteazkenetan hor dituzue jo eta su iluntzeko zortzietatik aurrera, ikastolako lokalean, 16. portalean. Hemen egiten dira oraindik ekintza guztiak beste lokala bukatu bitartean, hau ere laster izango dugu martxan. Besterik gabe, dantzarako animatuz, usoetaz ere agurtzen naiz.



ALAZNE
BEGIRISTAIN

Urdaiaga

Sendategian festa

Orain dela bi aste, festa ederra ospatu zuten sendategian 70. urteurrena zela eta. Goizean goizetik, musika jarri eta jokuak egiten aritu ziren bertako gaixoak: toka, pelota partida,...

Lehengo langileak ere etorri ziren eta ederki pasa zuten denek. Gehiagotan ere egin behar omen dituzte horrelakoak: gaixoak eta familiar-tekoak pozik eta langileak ere bai. Ez da askoren beharrik izaten honelakoetan ongi pasatzeko. Gaixo bat txistua eta danbolina jotzen ere aritu omen zen behintzat eta...

Gainerantzean ez dago berri handirik gure txoko honetan. Udazkena sartzen ari da eta antzematen da hori. Egunak geroz eta motzagoak eta hotzagoak dira. Andatza azpiko zuhaitzak berde koloretik hasi dira kolore hori, marroi, gorrixkara pasatzen eta ikaragarri aldatzen da



gure paisaia. Laster hasiko zaizkigu zuhaitzak biluzten, egunak mozten, ... Kanpoan hotz eta denok goxotasunaren bila ibiliko garen egunak, laster iritsiko dira...

Jaiak eta ehiza garaia

Kaixo denoi! Aurtengo San Praixku jaiak ere pasa zaizkigu dagoeneko. Zer moduz ibili zarete? Urtero bezala ekintza batzuk besteak baino ikusle eta partehartzaile gehiago izan dituzte baina primerako giroa izan dugu. Eguraldiak, lehenengo asteburuan, ez zuen asko lagundu, baina bigarrenako hego haizea etorri zitzaigun eta aterkirik gabe ibiltzeko moduan izan ginen behintzat.

Aspalditxo honetan joan al zarete mendi alde-
ra? Ba giro hauek aprobetxatu itzazue bueltaxka bat emateko eta konturatuko zarete zenbat ehiz postu eta ehiztari dabilen bertan. Postuak (batzuk behintzat) egoki prestaturik daude beraien aldamio eta guzti. Azken aste honetan eguraldia ere portatzen ari zaie zaletasun hau dutenei, hego haizea daukagu eta, hori bai, ez dakit uso asko pasa ote den ez baitut gai honetaz batere entenditzen, baina lasai, kalean ehiztari amorratu hauetakoren bat ikusten baduzue, bera-



ri galdetu eta seguru gustuz erantzungo dizuela, bestela, badakizue, belarriak adi jarri eta tiro hots asko entzuten bada, seinale zer edo zer badabiltzala. Ah! Eta kontuz orain hegaztien gripea dela eta badaezpada ere...

Beno eta haxe izan da nire azken alea, hurrengo batean txanda beste batentzat izango da, aio!

Aginaga



**AINHOA
SALSAMENDI**

Lehenengoa

Lehenengo nor helmugaratuko, koadro Lzuri-beltzeko bandera lehenengo nork ikusiko, horrela ibiltzen dira Zubietan kotxe eta moto gidariak. Etxeberri parean bosgarrena sartu, Lizarrako bihurtunean laugarrena, eskola txikiko stopean aurrera, oinezkoentzako bidetik plaza berrira, frontoi barruan bueltaxoa, buelta eskola txikira, stopean ezkerrean, profesionalerako aldapan azeleratu eta iiiiiiiiii!, tronpoa ezkerrean, Irigoien kale zuzenean sprinta eta bravo!, bravissimo!, Araetako helmugan lehenengo postua berea...

Usurbilgo eta Donostiako udalei abiadamotelgailuak jartzeko eta oinezkoentzako bideak ixteko eskatzen badiet, ez naiz hori egiten lehenengoa izango. Lehenago ere egina dute eskaera hori Herri Batzarrak eta herritar askok. Baina, betikoa, behin eta berriz eskatuta ere ez

dugu lortuko, lehenengo istripua gertatu eta lehenengo zaurituak eduki arte itxoin beharko dugu.

Horregatik, bien bitartean, orijinala izaten saiatuko naiz eta lehenengoa izango naiz ideia hau proposatzen: pintatu helmuga Araetan, jarri pneumatikozko hesiak bihurtuneetan, muntatu harmailak eskola profesionaleko bihurtunean edo eskola txikiko bidegurutzean eta sartu 1-Formulako zirkuituan Zubietako Auto Lasterketa. Zer iruditzen? Lehenengoak izango ginatete Euskal Herrian.

Lasterketak baino Milaren 23ko omenaldia dute buruan zubietar askok. Ez du lehenengoa izango, uda aurretik Elgetan ere jaso zuen-eta urte askoan irabazitakoa, baina bai hunkigarriena, berak hezitako zubietar askoren esker ona jasoko baitu.

Zubietta



**DENIS
ELORTZA**

Laster irekiko dira liburutegi berriko ateak

Uztailaren bukaeran itxi zen udal liburutegia. Ikasturte berrirako, Sutegi kultur etxe berria martxan izango zela uste zen. Horregatik liburu denak liburutegi zaharretik kultur etxe berrira eram zituzten. Baina ikasturtea hasi da eta kultur etxe berria ireki gabe jarraitzen du. Honen ondorioz, udal liburutegi berria ere itxita dago. Udaletxetik esan digutenez, laster irekiko da liburutegia. Kultur etxeoko gainontzeko zerbitzuak ere, berdin. Atzerapen gehiagorik ez bada, azarorako martxan izango da Sutegi kultur etxea.

Kultur etxe berriko lanak asko atzeratu dira. Uste baino gehiago. Eraikuntza-lanak gidatu dituen enpresarekin desadostasunak izan dira eta hori dela eta, are gehiago luzatu dira gauzak. Honek eragin zuzena izan du udal liburutegian. Gauzak gehiago okertzen ez badira, laster zabalduko dira udal liburutegi berriaren ateak.



LIBURUTEGIA, ERAKUSKETA GELA ETA HITZALDI ARETOA IZANGO DITU KULTUR ETXE BERRIAK.

Urria amaitu baino lehen. Eta kultur etxe berriko gainerako aretoak ere (erakusketa gela, hitzaldi-aretoa) laster. Azaroran irekiko diren esperantza dute Kultura batzordekoek.

Euskal Herriko Jasangarritasunerako konpromisoa

2005eko maiatzaren 27an Usurbilgo udalbatza plenoak Aalborgeko gutuna eta Aalborg-20 konpromisoekin bat egitea erabaki zuen.

Orain urrats berri bat eman nahi da. Honela, Ekintza Plana aurkeztearekin batera, plan honek bere baitan jaso behar duen oinarria ere berrestea proposatzen da. Alegia, Euskal Herriko Jasangarritasunerako Konpromisoa ere Usurbilgo Udalak bere baitan jasotzea.

Gay, lesbiana eta bisexualen aldeko mozioa

Azken udalbatza plenoan, gay, lesbiana eta bisexualentzat eskubideen parekatzea eskatu zuen Usurbilgo Udal Talde Sozialistak, PSE-EE alderdiak.

Talde sozialistaren mozioa aurrera atera zen. PPK, mozioa alternatiboa prestatu zuen. Baina PSE-EErena onartu zenean, Alderdi Popularrak berea erretiratu zuen.

2006ko ordenantza fiskalak onartu ziren iraileko udalbatza plenoan

Iraileko udalbatza plenoan, besteak beste, 2006ko ordenantza fiskalak onartu ziren. Igoerak planteatu diren kasuetan, urteko KPIa ez gaintzeko ahalegina egin da baina salbuespenik eman da.

Zabor bilketaren kasuan, hondakinen kudeaketak sortzen dituen gastuak ez dira estaltzen diru sarrerekin (%30). 2006rako igoera, KPI laukoiztuz egin

da. Iaz ere horrela egin zen, eta 2007an ere hala izango da.

Haur Eskolako prezioak

Haur Eskolako prezioan ez da inolako igoerarik proposatzen. Zerbitzua jasotzeko erreserban dauden haurren gurasoek ez dute janari gasturik ordaindu beharrik izango.

2006ko ekitaldirako indarrean sartu behar duten ordenantza fiskalen aldake-

taren lehen proposamena irailaren 8ko Ogasun batzordearen bileran aurkeztu zuen alkateak. Aurkezpen honen ondortik, bi aste epea ireki zen proposamenak aztertu eta ekarpenak egiteko.

Irailaren 27an, udalbatza plenoak behin behingoz onartu zituen ordenantza fiskalak. Urriaren 3an argitaratu ziren boletín ofizialean eta azaroaren 9a arte iraungo du alegazioak egiteko epeak.



Iñaki Mujika, Lanbide Heziketako sailburuorde berria

Euskal Herriko lanbide eskolekin harreman onak ditu. Lanbide Heziketako Euskal Planaren sustatzaile ere bada. Akaso horri esker, Hezkuntza Saileko Lanbide Heziketako zuzendari izatetik sailburuorde izatera pasa da Iñaki Mujika usurbildarra.


NOAUA! Irailaren bukaeran, Hezkuntza Saileko sailburuorde kargurako izendatua izan zinen. Espero al zenuen?

Iñaki Mujika. Gobernu berria osatzekoan, beti bezala, zurrumurru batzuk izaten dira. Hezkuntza Saileko sailburua aldatzekoa zela aspalditik erabakita zegoen alderdian. Sailburuordeak aldatuko ziren edo ez, ez zegoen hain garbi. Alderdian agintzen daudenek Lanbide Heziketako sailburuordetza aldatu behar zutela erabaki zuten. Normala da, gainera. Tontxu Camposek bere lan-taldea egin nahi izan du. Ekaina bukaeran hartu zuen kargua Camposek. 10 eguneko epean bere lan-taldea zehaztuko zuela uste genuen. Egunak pasa ziren, asteak ere bai. Tarte horretan, Usurbilgo enpresa bat kudeatzeko aukera izan nuen. Gerentzia eskaini zidaten. Hortxe zegoen gakoa: Lakuan jarraitu ala Usurbilgo enpresan hasi. Zubietako Lanbide Eskola ere hor dago. Nire lanpostua hor daukat.

Uztailaren 27an erabaki bat hartu behar nuen. Tontxurekin bildu nintzen eta Usurbilen suertatu zitzaidan aukera aipatu nion. Bost minutuko hizketaldia behar zuena ordu eta erdiz luzatu zen. Solasaldiaren amaieran, sailburuordetzarako proposatu zidan. Orduan izan nituen nik lanak. Familiarekin, eskoletako lagunekin eta ikastetxeetako elkarte ezberdinekin hitz egin ondoren, sailburuordetza kargua onartzea erabaki nuen.

N. Hezkuntza Sailan egiten duzu lan. Zertan da euskara ikasi nahi ez duten irakasleen kontua?

I. M. Nik uste dut une honetan nahiko garbi dagoela. Alde batetik, 157 irakasle horietatik 5 ez ezik, gainontzekoak lanean edo euskara ikasten ari dira. Bestalde, gauza jakina da euskara ikasteko aukera ugari izan dituztela. Egoera hori beste batzuk jasan dute, eta beste



TONTXU CAMPOS SAILBURUAREN AGINDUETARA IZANGO DA IÑAKI MUJIKA.

batzuk jasango dute aurrerantzean ere. Une honetan, dauden arauekin, ezin dugu salbuespenik egin. Bestela, euskara ikasten ari diren gainontzeko irakasleak atzetik etorriko lirarteke kontu berarekin.

N. Lanbide Heziketan, euskara arrotza izan da. Gauzak aldatzen hasi direla dirudi. Ez dakit gai hau zure agendan izango ote den.

I. M. Bai, bai. Gainera, hiru alderdien arteko gobernu akordioan garbi jasota dago. Horretan ari gara lanean. Ikasturte honetarako, 75 ziklo gehiago eskaini ziren euskaraz. Orain datuak begiratze-ko ditugu. Ikusiko dugu eskaintza hori bete den edo ez. Matrikulazio datuak laster jasoko ditugu (urriaren bukaeran). Malgutasun handiarekin jokatu dugu ikastetxe publikoetan. Eskaintza nahiz eta oso-osorik euskaraz ez izan, eskaintza osoaren %60a edo %70a, behintzat, euskaraz ikasteko aukera bermatzea.

Materialari dagokionez, ahalegin ikaragarria egin da. Laneki proiektua hor dago. Lanbide Heziketako ikastetxe publiko eta pribatuaren elkartek Elhuyarrekin lanean ari dira. Lan-talde horri esker, urtean material asko argitaratzen da euskaraz.

N. Lanbide Eskolak eta Udalak lan-hitzarmen bat sinatu berri dute. Pozik hartuko zenuen albistea.

I. M. Noski. Usurbilgo Lanbide Eskolaren historia ezagutzen dutenek badakite erroak hor daudela. Usurbilgo udaletxeko zenbait pertsonek bultzatu zutelako atera zen ikastetxea aurrera. Garai hartan, hemengo gazteek lanbiderako formakuntza behar zutela ikusi zen. Inguruko zenbait enpresarien laguntzarekin eta Usurbilen zeuden lizentziatu gutxi horiei esker, osatu zen Lanbide Eskola. Udalak, beraz, badu hasieratik presentzia oso garrantzitsua.

30 urteotan eskolak beti goraka egin du. Teknologia aldetik, eskola aurrera-tuenetakoa da orain. Une honetan, Euskadin dagoen Lanbide Heziketako eskola onenetarikoa da.

Lanbide Eskolatik Eusko Jaurlaritzara

Iñaki Mujika Aizpurua Usurbilgo Lanbide Heziketako Eskolan hasi zen lanean, 1980an. 21 urte eman zituen bertan. 1986tik 1993ra bitartean, ikastetxeko zuzendariorde izan zen, eta 1993tik 2001era zuzendari. Urte horretan bertan, 2001ean alegia, Eusko Jaurlaritzan sartu zen, Hezkuntza eta Unibertsitate Saileko Lanbide Heziketako zuzendari moduan. 2005eko irailaren 27az geroztik, Lanbide Heziketa eta Etengabeko Ikaskuntzako sailburuordea da.

70 urte bete ditu sendategiak

Berraiartzabitartea baserria bezain dotorea da ingurunea. Urdaigako tokirik ederrene-takoan, hantxe da Usurbilgo Sendategia. Donostiako Larrea eta Bidarte medikuek ere gustuko tokitzat zuten eta, duela 70 urte, sendategi bat zabaltzeko asmoarekin erosi zuten baserria eta baserri ondoko lur-zatia. Gaur egun, estimazio handiko sendategia da Usurbilgoa. Osasun mentalaren arloan ari diren profesionalentzat, erreferentzia. Ez bakarrik Euskal Herrian, baita atzerrian ere. Japoniatik etorri izan dira sendategiaren martxa ezagutzera. Puntako zerbitzua eskaintzen duen seinale.



BASERRIA TXIKI GERATU ZEN ETA ERAIKIN BERRI BAT EGIN DUTE ALBODAN.

Urdaigako Berraiartzabitartea baserrian kokatua

San Estebango kaxkotik gertu, Berraiartzabitartea baserrian kokatzen da Usurbilgo Sendategia. Beste behin ere, "Usurbilgo baserriak eta baserriarrak" liburuak argitu digu baserri honek izan duen bilakaera.

Dirudienez, XX. mendearen hasieran erre egin zen eta berriz eraberritu egin zuten, gaur duen itxura hartuz. Josu Tellabidek idatzitako liburuan irakurri dugu baserri honen bilakaera: "(...) XIX. mendearen bukaeratik aurrera, Anacleto de Romero y Zatarain zen Berraiartzabitarreko jabea. Oso aberatsa, Filipina irletan dirua egin omen zuen, eta dirudienez, baserri honetan bertan bizi zen. 1876an, Gipuzkoako probintziako diputatu izendatu zuten, eta 1889an, berriz, Gipuzkoako Diputazioko lehendakariorde.

Jose Romero Sein semeak hartu zuen

etxearen jarraipena. Dirudienez, Berraiartzabitarrean jaioa zen 1877an. Jose Romero ere, Gipuzkoako probintziako diputatu izan zen bi aldiz; beste bi aldiz, Madrilen senatore. Armada espainiarreko lurralde ordezkari, eta beste zenbait kargu bete zituen. 1916an gobernu espainiarrak ematen zuen nekazaritza-merituaren Gurutze Handia jaso zuen. Ana Maria Dorrego Bidagurenekin ezkondua zegoen.

"1935 urtean,
Donostiako bi sendagileren
artean erosi zuten baserria"

Berritzabitarrea baserriko Eujeni Irazustak dioenez, Ana Maria oso emakume ederra zen. Manolo deitutako seme bat izan zuten.

1920 aldean hil zen Jose Romero, eta



SENDATEGIA, DUELA 70 URTE.

handik gutxira, Manolo semea, Alemanian, dirudienez, moto lasterketa batean. 1935 inguruan, Ana Maria Dorregok saldu egin zuen Berraiartzabitarrea bere lur guztiakin. Donostiako bi sendagileren artean erosi zuten, Larrea eta Bidarte izenekoak. Hauek egoitza-sendategi bat jarri zuten". Liburuak dioten bezala, 70 urteren ondoren, jarduera honekin jarraitzen du baserri bikain honen historiak.

H n k n u z n n, s l z

USU ILG H TZ KLINIK

FE N N E EZ-M SS NENNINGE
NT NI E N L UIZ E

K L N US , 2 I C 2 17
Tlf 3 37 7 USU IL

Kale Nagusia, 10
Telf: 943 37 33 48
943 37 09 13

Olandegia - Gozategia

LABE-GOXO

**PATRI
JATETXEA**

943 362 795

Alvaro Olano, sendategiko zuzendaria: “Ingurune naturalak gaixoen ongizatea errazten du”

NOAUA! Zein izan da sendategiaren bilakaera?

Alvaro Olano. Larrea eta Bidarte sendagileek sortu zuten Usurbilgo Sendategia 1935ean. Ordutik, gaixotasun mentalak pairatzen dituzten pertsonak jasotzen ditu. 1935 urtetik hona, 5.000 gaixo zaindu ditu sendategiak.

Euskal Autonomia Erkidegoan ezarrita dagoen eredu psikiatrikora egokitu asmoz, sendategia berriro egin dugu. Egonaldi luzeak alde batera utzi ditugu; baita gaixoen bakartze-neurriak ere. Gaixoarean tratamendua bere inguruarekin lotu dugu. Familia eta ingurutik gertu, gizarteratzeko behar dituen abildadeak jaso ditzan.

Egonaldi ertaineko egoitzan bilakatu nahi dugu sendategia. Sei hilabeteko epean, gaixoa bere ingurura itzultzeko helburua ezarri dugu.

N. 1999an azpiegitura berrieekin osatu zenuten sendategia. Helburu horietara egokitzeko eraberritu zenuten, beraz.

A. O. 1999. urtean aldaketa sakon bati ekin genion. Gizartearen eskaerei erantzun asmoz, Egonaldi Ertaineko Unitatea zabaldu genuen. Birmoldaketak, ordea, instalazio guztiei eragin die. Komunitateguneak zabaldu ditugu, igogailu bat ipini, terapiak garatzeko eraikin berri bat zabaldu... Hori gutxi balitz, gela denak berriro ditugu, erosotasun gehiagorekin hornituz.

ALVARO OLANO

“Gaur egun, 78 gaixo jasotzeko moduan da Usurbilgo Sendategia”

N. Toki ederrean aurkitzen zarete. Sendategi baterako egokia, ezta?

A. O. Ingurune naturalak atsedendaldia eta gaixoen ongizatea errazten du. Kanpoan, atari zabalean, jarduera ugari garatzeko egokia da gainera. Gaixoak bakarrik edo lagunduta irten ohi dira. Sendategi inguruan, Santuenean,



ALVARO OLANOK ADIERAZI DIGUNEZ, AURRERANTZEAN ZERBITZU GEHIAGO ESKAINI NAHI DIRA SENDATEGIAN.

Txokoalden eta San Estebanen ibili ohi dira. Baina jarduera ezberdinetan hartzen dute parte. Oiaro kiroldegian gimnasia eta igeriketa egiten dute. Usurbilen izan duten harrera oso ona izan da.

N. Garai batean, mojak edo serorak ziren gaixoetaz arduratzen zirenak. Gaur egun, ordea, mojarik ez da sendategian.

A. O. 60ko hamarkadaren erdialdean, serorek (karmelidak) sendategia utzi zuten eta ordutik erizain profesionalak izan dira gaixoen zaintzaz arduratu direnak. 78 gaixo jasotzeko moduan da Usurbilgo Sendategia. Gaixoen zaintza ziurtatzeko 60 langile ditugu.

N. Beste sendategi batzuetatik etorri izan dira bisitan. Erreferentzia al da?

A. O. Aipatu dugun eraberritzearen ondorioz, harreman estuak ditugu EAeko nahiz EAetik kanpoko beste sendategi batzuekin. Euskal erakundeak gure egoitza ezagutzera ekarri ditugu. Duela bi urte, Japoniako psikiatriko pribatuetaiko arduradun-talde baten bisita jaso genuen. Bilera polita izan zen. Esperientzia eta informazioa trukatzeko aukera izan genuen.

N. Epe erdira, zeintzuk dira sendate-

giaren erronka nagusiak?

A. O. Asistentzia mailan, kalitatea hobetzen jarraitu. Azpiegiturei dagokionez, instalakuntzak hobetzen segi. Maila ekonomikoan, instituzioen aldetik dotazio gehiago jaso. Zerbitzu berriak eskaini nahi ditugu, Eguneko Zentroaren parekoa, adibidez.

“Herrian egin zaigun harrera oso ona izan da”

Urteotan, funtsezko xede hauetan oinarritu da sendategia: gaixoei etengabeko zerbitzua eskaini, profesional arduratsuak, tratu pertsonalizatua, familien inplikazioa... Aurrerantzean ere, kalitate gorena eskaintzen jarraitu nahi du Alvaro Olano.

Azken urteotan egin diren berrikuntzak, Euskadiko osasun mentalaren abanguardian jarraitzeko asmoz egin direla aitortu digu Olano: “gizartearen eskaerei erantzuteko aldaketak izan dira”. Sendategiko zuzendariak eskerrak eman nahi dizkie instituzio lokalei: “era berean, Usurbilgo herriari ere eskerrak eman nahi dizkiogu egin zaigun harrerarengatik”, adierazi digu Alvaro Olano.

Ugarte ezin dela bota ohartarazi du UHLk

Ikasturte hasierarekin batera, herri batzarrerako deialdia egin zuen Usurbilgo Herri Lan bilguneak, 2003ko udal hauteskundeetan legez kanpo utzi zuten plataformak. Azken hilabeteotan egindakoa azaltzeaz gain, pil-pilean diren gaiak aztertu ziren batzarraren. Arantxa Manterolak eman dizkigu batzarraren xehetasunak.

Ugarte baserriaren lurreratzea ekarriko lukeen proiekturik ez onartzea eskatuz, UHLk 387 herritarren sinadurak aurkeztu zituen udaletxean. Irailaren 8an izan zen hori. Ez dute inolako erantzunik edo azalpenik jaso oraingoz.

Irailean ere, Administrazio Epaitegian salaketa jarri zuen UHLk, bai Ugarte baserrian zein Ugartondo eremuan udalak baimendu asmo dituen proiektuek prozedura eta araudia ez dutela bete salatuz.

Kontsulta urbanistikoen aurrean, alegazioak eta helegiteak aurkeztu zituzten. Birritan, Koldo Azkoitia Lurralde Antolaketarako diputatuarekin elkarriketatu dira. Larrain SA baserriko jabeak aurkeztu duen zehaztasun azterlanari ere alegazioak aurkeztu dizkio UHLk. Arantxa Manterolak dioenez, "baserria ezin da bota katalogotua-babestua dagoelako. Proiektua ezin da onartu Arau Subsidiarioek 14 etxebizitza egiteko aukera ematen dutelako eta ez 20, lur-azpiko garaje eta guzti, Larrainek eskatzen duen moduan. Gainera, 14 etxebizitza horiek, betiere, gaur egungo baserriaren eraikuntza mantenduz egin beharko lirateke. Beraz, araudiaren arabera baserria ezin da bota".



UGARTE BASERRIA KATALOGATUTA ETA BABESTUTA DAGO.

Liburutegia eta Euskal Txokoak

UHLrentzat badira kezagarri diren beste kontu batzuk ere. Euskal Txokoak, esate baterako. Jada ez daude martxan. UHLren ustez, "euskara ez dakiten familia asko Usurbila etortzen ari diren honetan, arduragabekeria deritzogu udalak zerbitzu hau desmantelatzea ordez ezer jarri gabe, horrelako joera, are eta gehiago, gure herria UEMAKo partaide denean".

Udal liburutegiaren egoera ez da ohar-kabea pasa. UHLren iritziz, "udal liburutegirik gabe gaude abuztuaz geroztik. Orduan, lojika guztiaren kontra eta planifikazio akats nabarmena eginez, liburu guztiak kultur etxe berrira eraman baitzuzten horko tokia prest eduki gabe. Beraz, ikasturtea hasita dago eta gure hau-

rrek (batez ere hauek erabiltzen dute liburutegia) zerbitzu hau itxita daukate ez dakigu noiz arte. Nola itxi daiteke zerbitzu bat ordezkioa martxan jarri gabe?". Kudeaketa desegokia izan dela dio UHLk eta kultur etxea behar bezala zabaltzea eta bertako zerbitzuak martxan jartzea eskatu du.

Zaborren zergaren igoera

Zaborren zerga igoera (KPI-IPC x 4) ere salatu nahi du UHLk. Jasotako zergekin ez da zerbitzua finantzatzeko baina UHLren esanetan, "zerbitzu publiko bat ez da nahitaez tasa zuzenekin finantzatu behar bere osotasunean. Udalak dituen beste diru-sarrerekin konpentsatu beharko luke zerbitzua".

Ingurumena

Herriko enpresa batek egin nahi dituen hondakinen isurketa (lohiak, besteak beste) dela eta, UHLk azterketak egitea edo egindakoak ikuskatzea eta egiaztatzea eskatzen du. Baimenik eman aurretik, zein substantzia diren jakin ahal izateko. "Urdaiagako hondakindegian betelan gehiago egiten ez uztea eta, aspalditik agindu moduan, hondakindegia erabat itxi dezala exijitzea" eskatu du UHLk.

UHLren mozioa

UHLren ordezkaritza aldarrikatuzeko mozioa aurkeztu zen udaletxean baina Luis Mari Ormaetxeak ez zuela aztertu nahi izan salatu dute UHLko kideek. Orain beste bat aurkeztuko dute. Euskal Herrian gatazka politikoa konponbidean jartzeko saiakeran, "milaka herritarren bazterketa politikoa gaintzea lagungarri izango delakoan, gure ordezkaritza onartu dezaten eskatuz".

Presoen dirulaguntzak

Presoen senideek ez dute dirulaguntzarik jaso oraindik. Aurrekontuetan jasota dagoen arren, presoen familiei aurtengo bidaia bakar bat ere ez zaie ordaindu. "Presoak bere etxetik hurbil izan balira familiek ez lukete etengabeko diru-jario horregatik laguntzarik eskatu beharko. Zergatik blokeatzen du udalak onartuta duen laguntza?", galdetzen du Usurbilgo Herri Lan plataformak.

Kaiera Ibiltaria, eskubide zibil eta politikoen alde

Urriaren 23an, eguerdiko 12:00etan, Hernaniko Plaza Berrin jarriko da Kaiera

Eskubide zibil eta politikoen aldarrikapena Euskal Herri osoan zabaldu nahi du 18/98+ taldeak. Horretarako, 18/98 eta inguruko auzietan eskubide horiek urratu direnez, eskubide horien alde herritarren atxikimendua lortzeko ekimena jarri du abian. Herritarren ideiak, iritziak eta ekarpenak bilduko dituen kaiera bat herriz herri ibiliko dute hilaren 15etik azaroaren 12ra. Urriaren 23an, Hernaniko Plaza Berrira iritsiko da Kaiera Ibiltaria.

Liburuxka handi bat izango da kaiera, eskuz egin eta azalean Xabier Idoate margolariaren artelana duena. Lan taldeak sinatutako hitzaurre bat du kaierak lehen orrialdean, eta Euskal Herriko 100 pertsona esanguratsuren ekarpenak ditu ondoren. Arlo askotako lagunak bildu ditu taldeak; politikariak, hautesiak, intelektualak, euskal kulturaren ingurukoak, gizarte mugimenduetakoak eta kirolariak, esaterako. Horien atzetik herritarren ekarpenak biltzea da xedea. Testu txiki bat, olerki bat, marrazki bat, esaldi bat, bertso bat... norberak iritzia ematea da helburua.

Herritarrak ere, auzipetuta

Euskal Herriko herrialde eta hiriburu guztietatik eta hainbat herritatik pasako da kaiera; herri askotan, auzipetutako kideak daudelako. Usurbilen, esaterako, hiru herritar daude auzipetuta: Olatz Altuna, Pello Zubiria eta Juan Mari Torrealdeai.

Ibilbideari Iruñean hasi zen, hilaren 15ean, eta Durangoko erakustazoka izango du helmuga, azaroaren 12an.



URRIAREN 15EAN ABIATU ZEN KAIERA IBILTARIA.

Gure eskualdera urriaren 23an iritsiko da. Egun horretan Hernaniko Plaza Berrin jarriko da Kaiera. 12:00etan jarri dute hitzordua.

Laster hasiko da 18/98 auziko epaiketa

Litekeena da 18/98 auziaren ahozko saioa azaroaren 14an hastea, Espainiako

Auzitegi Nazionaletik auzipetuen defentsei jakinarazi zitzaenez. 18/98 auziko epaiketa hurbil dagoela dirudi, beraz. Frogarik gabeko auzi hauetan, pertsona asko kartzela zigor larrien bidez mehatxatuta daude eta pertsona askoren eskubide zibil eta politikoa urratu dituzte. Hala nola, enpresa, hedabide zein antolakunde anitz itxita jarraitzen dute.

Urriaren 23an, hitzordua Hernanin

10:00. Kaiera Egin eta Egin Irratiko enpresaren atarira iritsiko da. Ondoren, kaiera Hernanira abiatuko da, atzetik kotxe karabana.

11:00: Auto karabana plazara iritsiko da.

11:30. Ongi etorri herritarra eta alkate ohiek jasoko dute kaiera Gudarien enparantzan, euren ekarpena egiteko. Ondoren, inputatuek hartuko dute kaiera eta Plaza Berrira era-

mango dute, atzetik jende multzoa dutela.

12:00. Plaza Berrin, gazteek jaso eta aurkezpena egin. Ekarpenak egin ahala oholztan saioak hasiko dira (Morau, Joxan Goikoetxea, Alan, Beltran...)

13:30. Amaiera ekitaldia: ekarpena egin duten bi lagunentzako hitzaldia eta, gero, sagardogile eta elkarteek antolatutako pintxo eta sagardo jana.

Zendoia

Kale Nagusia 35 - 943 37 40 71

LAUKOTE

OKINDEGIA
KAFETEGIA

Huntapax kalas. 16 beheak
(Arzapal): 943 26 00 80

OKELA

CASA DE MONJO
16-04-040
DEL TALLER

LK T
UT ZE ITZU

ETXEK **OKTU K**
K NOEL TU K

h k k l , 4
T H 43 3 57 42

Mikel Urdangarinek disko berria aurkeztuko du Usurbilen

Azaroaren 19an, puntako artista baten jaialdiaz gozatzeko aukera izango dugu. Gutxitan izaten da horrelako aukerarik. NOAUA!k antolatu duen Kultur Asteari esker, etxean bertan ikusiko dugu Mikel Urdangarin. Zornotzako gazteak Oiardo kiroldegian aurkeztuko du "Dana" izeneko diskoa.

Kantuari dion mirespenagatik eta hain denbora gutxian lortu duen onespenagatik, Euskal Herriko musikari aitzindarien oinordeko definitu du Urdangarin Anjel Valdes Elkar disketxeko ordezkariak. Zornotzako kantariak nahiago du pentsatu nor bere lanaren oinordeko baino ez dela. «Pribilegiatua naiz, aurretik izan ditudan musikariei erreparatuta asko ikasi baitut, baina zama handiegia da niretzat haien ondorengo natura naizela



OIARDO KIROLDEGIAN ARITUKO DA, AZAROAREN 19AN.

pentsatzea», adierazi zuen diskoaren aurkezpenean.

Dana diskoarekin Euskal Herriko

plazetara itzuliko da Urdangarin. Azaroaren 19an gure artean izango da, Oiardo kiroldegian.

NOAUA!k antolatu du kontzertua

Azaroarekin batera iritsi ohi da ANOAUA!k antolatzen duen kultur astea. Aurten, hauxe izango da egitaraua. Datorren alean ekitaldi denen xehetasun gehiago emango ditugu.

Azaroak 10, osteguna
Antzerki saioa
Lakrikum Antzerki Taldearen "Greban gaude" komedia.

Azaroak 15, asteartea
Film laburren emanaldia
Euskarazko bost film labur ikus ahal izango ditugu: "Ostertz", "Lepokoa", "Amnesiak", "El salto de Beamon" eta "Amuak".

Azaroak 17, osteguna
Diaporama
Asia erdialdeko lurralde arrotzetan ibili dira hainbat herritar. Irudi

bidez erakutsiko digute bertan ikusitakoa.

Azaroak 19, larunbata
Mikel Urdangarinen saioa
Mikel Urdangarin zornotzarrak "Dana" diskoa aurkeztuko du Oiardo kiroldegian.

Kontzertua 22:30ean hasiko da. NOAUA!ko bazkideentzat, sarrera merkeagoa.



Usurbil Autoak, S. C. L.

Zerbitzu Ofiziala

Zumartegi Poligonoa
Aitezarra kalea, 1
20170 USURBIL

Tlf: 943 36 10 79
Faxa: 943 36 62 92

Kalkos kopisteria

FOTOKOPIAK
zuri-beltza · koloretan

BANDERA
SALMENTA

PINTORE KALCA 7 · LASARTE ORIA

943 36 42 42 · 943 36 122 123 FAX kalkos@kopisteriakalkos.com

Radio Nacional de Españak antena berri bat jarri nahi du Andatzan

Radio Nacional de Españak (RNE) antena berri bat jarri nahi du Andatzan. Antenarainoko bidea zabaldu asmoz, lau kilometroko biala irekitzen hasi ziren lehengo astean. Zubietako Artzabaletatik baserrietik Andatzara bidean, lau metro eta erdiko zabalerakoa.

Urriaren 14an, ostirala, biala zabaltzeko lanak bertan behera utzi behar izan zituzten. Zubietako lur-jabe batek geldiarazi zuen garabien lana. Obrak hasi behar zueneko abisurik ez zuela jaso argudiatuz.

Urriaren 17an, astelehena, biala zabaltzen hasi ziren berriz ere. Zubietako Herri Batzarreko kideek, ordea, obra geldiarazi egin zuten. Proiektuaren berri ez zutela eta lana burutzen ari den enpresari horixe eskatzen zioten Herri Batzarreko kideek, azken proiektuaren idatzizko agiria. Baina obra kudeatzen ari direnek ez zeuden proiektua erakusteko prest. Donostiako Udaletxean aurkeztu zutela eta Herri Batzarri ezer erakusteko obligaziorik ez zutela argudiatu.



GARABIAK, GELDI.

Zubietatik barrena

RNEk, iaz, Andatzan antena jartzeko baimena eskatu zuen. Usurbilgo Udalak baimena eman zuen baina orduan aurkeztutako proiektuan, San Esteban zen bialaren abiapuntua. Ez Zubietan. Zubietako Herri Batzarreko kideek hala esan digute. Horregatik, biala egiteko proiektuaren azken txostena jaso nahi dutela adierazi zigun Imanol Azpirozek, Zubietako alkateak. Hori salatuz, garabiek hasitako lana geldiarazi egin zuten urriaren 17an. Lerro hauek idazterakoan, Zubietako Herri Batzarrek oraindik ez zuen txostenik jaso.

Urriaren 28an, Salvatore Parrokian, puntako organo kontzertua

Urriaren 28an, Koloniako katedralako organojole titularra entzuteko aukera izango dugu. Winfried Böning du izena eta Organoaren Lagunak elkarteak egin duen ahaleginari ere, Salvatore Parrokian arituko da.

1959an jaio zen Winfried Böning musikari alemaniarra. Estimazio handiko organojolea denez, Kanadan, Japonian, Hong Kongen, Israelen, Amerikako Estatu Batuetan eta Europako hiri askotan aritu da zuzenean.

Grabazio ugari egin ditu gainera. Beraz, maila handiko jaialdiaz gozatzeko aukera izango dugu urriaren 28an.



EZ DA SARRERA ORDAINDU BEHAR IZANGO.



EGUNA: urriak 28, ostirala
ORDUA: iluntzeko 20:00etan.
NON: Salvatore Parrokian.
SARRERA: doan.

ANTOLATZAILEA: Usurbilgo
Organoaren Lagunak.
BABESLEAK: Foru Aldundia,
Usurbilgo Udala.

EHNA eskuratzeko aukera berri bat

EHNA eskuratzeko aukera berri bat izango dugu urriaren 29an. UHLk jakinarazi duenez, goizeko 11:00etatik 13:00era EHNA tramitatuko da udaletxe aurrean. Hau da aurkeztu behar dena: bi argazki, errolda agiria eta 15 euro. Adingabeok, gainera, famili liburuaren fotokopia erakutsi beharko dute.

“Elkartasuna Etorkizuna” jaia Basaurin

Ursubilen ospatu zen “Elkartasuna Etorkizuna” festaren lehen edizioa. Duela hiru urte izan zen eta Nafartarrak taldeak antolatu zuen. Usurbilen hasiriko ekitaldiak, aurtan, Basaurin du laugarren hitzordua. Urriaren 23an, hain zuzen.

“Elkartasuna Etorkizuna” jaiaren helburu nagusia hau da: Euskal Herriko herrialde guztietako jendea biltzea.

Jaia goizeko 11:30ean hasiko da, ongi etorria bertsolari eta txalapartariekin izango delarik. Gero, herrialde guztietako ordezkariekin, herriko lau gunetetatik barna kalejira egingo da.

Kultur eskaintza oparoa izango da. Tartean izango dira Usurbilgo txalapartariak, albokariak eta trikitilariak, Añorgako Beñat eta Unai Gaztelumendi bertsolariak...

Bazkarirako sarrerak salgai

Herri bazkaria eguerdiko 14:30ean hasiko da. Prezioa, 22 eurotan. Bazkalostean, ekitaldi nagusia izango da, hau da, herrialde bakoitzeko ordezkariak oholtza gainera igoko da bere eskaintza aurkeztera. Bi orduko iraupena izango du guztira eta bukaera emateko denek larrain-dantza dantzatuko dute.



Izena-ematea Txirristra tabernan egin daiteke. Autobusa goizeko 9:30ean irtengo da eliza ondotik.

Ea asmatzen duzuen

Kaixo lagunak! Ezagutzen al duzue galaxia? Eta planetak? Seguru baietz. Baina ba al dakizkizue planeten izenak ingelesez? Ea ariketa honekin ikasten dituzuen.

LH6. mailako ikasleak

THE PLANETS



Autobus ordutegia Donostia-Zarautz

Donostia	Urbil	Usurbil	Zarautz	Donostia	Urbil	Usurbil	Zarautz
07.40		08.05	08.25	15.00	15.20	15.25	15.45
08.00		08.25**		15.40		16.05	16.25
08.00	08.20	08.25	08.45	16.00	16.20	16.25	16.45
08.40		09.05	09.25	16.40		17.05	17.25
09.00	09.20	09.30		17.00	17.20	17.25	17.45
09.00	09.20	09.25	09.45	17.40		18.05	18.25
09.40		10.05	10.25	18.00	18.20	18.30	
10.00	10.20	10.25	10.45	18.00	18.20	18.25	18.45
10.40		11.05	11.25	18.40		19.05	19.25
11.00	11.20	11.25	11.45	19.00	19.20	19.25	19.45
11.40		12.05	12.25	19.40		20.05	20.25
12.00	12.20	12.25**		20.00	20.20	20.30	
12.00	12.20	12.25	12.45	20.00	20.20	20.25	20.45#
12.40		13.05	13.25	21.00	21.20	21.25	21.45
13.00	13.20	13.30		21.00	21.20	21.25	21.45
13.00	13.20	13.25	13.45 #	22.15	22.35	22.45	23.05
13.40		14.05	14.25	22.00	22.20	22.25	22.45
14.00	14.20	14.30**		22.30	22.50	23.05	23.15
14.00	14.20	14.25	14.45				
14.40		15.05	15.25	00:00		00:25	00:45
15.00	15.20	15.30		02:00		02:25	02:45
				04:00		04:25	04:45
				06:00		06:25	06:45

■ Soilik larunbata gauer # Larunbata, Orion autobus aldaketa Aiara
 ■ Larunbat lanegunetan ■ Asteburutan, jaietan **Aiara
 Harremanetarako: 902 54 32 10 / www.euskotren.es

Autobus ordutegia Zarautz-Donostia

Zarautz	Usurbil	Urbil	Donostia	Zarautz	Usurbil	Urbil	Donostia
06.45	07.05		07.30	14.45	14.30	14.35	15.00
06.45	07.05	07.10	07.30	14.45	15.05	15.10	15.30
07.15	07.35		08.00	15.45	15.30	15.35	15.55*
07.45	08.05	08.30		15.45	16.05	16.10	
07.45	08.05	08.15	08.40	15.45	16.05	16.15	16.40
08.15	08.35		09.00		16.30	16.35	17.00
08.45	09.05	09.30		16.45	17.05	17.10	
08.45	09.05	09.15	09.40	16.45	17.05	17.15	17.40
	09.30	09.35	10.00*	17.45	18.05	18.10	
09.45	10.05		10.30	17.45	18.05	18.15	18.40
09.45	10.05	10.15	10.40	18.45	19.05	19.10	
	10.30	10.35	11.00	18.45	19.05	19.15	19.40
10.45	11.05		11.30	19.45	20.05	20.10	
10.45	11.05	11.15	11.40	19.45	20.05	20.15	20.40
11.45	12.05		12.30	20.45	21.05	21.10	
11.45	12.05	12.15	12.40	20.45	21.05	21.15	21.40
12.45	13.05		13.30	21.15	21.35	21.40	22.00
12.45	13.05	13.15	13.40	21.45	22.05	22.15	22.40
	13.30	13.35	13.55*	22.15	22.35	22.40	00.00
13.45	14.05		14.30	01.15	01.35	01.40	02.00
13.45	14.05	14.15	14.40	03.15	03.35	03.40	04.00
				05.15	05.35	05.40	06.00

*Aiariak dator ■ Asteburutan, jaietan
 ■ Larunbat lanegunetan ■ Soilik larunbata gauer
 Harremanetarako: 902 54 32 10 / www.euskotren.es

Tren ordutegia

Donostia	Usurbil	Zarautz	Zarautz	Usurbil	Donostia
05.47*	06.03*	06.20*	06.08*	06.24*	06.39*
06.17*	06.33*	06.50*	06.38*	06.54*	07.09*
06.47*	07.03*	07.20*	07.08*	07.24*	07.39*
07.17	07.33	07.50	07.38*	07.54*	08.09*
07.47	08.03	08.20	08.08	08.24	08.39
08.17*	08.33*	08.50*	08.38*	08.54*	09.09*
08.47	09.03	09.20	09.08	09.24	09.39
09:20#	-	09:47#	10.08	10.24	10.39
09.47	10.03	10.20	11.08	11.24	11.39
10.47	11.03	11.22	11.22#	-	11.47#
11.47	12.03	12.20	12.08	12.24	12.39
12.17*	12.33*	12.50*	12.38*	12.54*	13.09*
12.47	13.03	13.20	13.08	13.24	13.39
13.17*	13.33*	13.50*	13.38*	13.54*	14.09*
13.47	14.03	14.20	14.08	14.24	14.39
14.17*	14.33*	14.50*	14.38*	14.54*	15.09*
14.47	15.03	15.20	15.08	15.24	15.39
15.17*	15.33*	15.50*	15.38*	15.54*	16.09*
15.47	16.03	16.20	16.08	16.24	16.39
16.17*	16.33*	16.50*	16.38*	16.54*	17.09*
16.47	17.03	17.20	17.08	17.24	17.39
17.17*	17.33*	17.50*	17.38*	17.54*	18.09*
17.47	18.03	18.20	18.08	18.24	18.39
18.17*	18.33*	18.50*	18.38*	18.54*	19.09*
18.47	19.03	19.20	19.08	19.24	19.39
19.17*	19.33*	19.50*	19.38*	19.54*	20.09*
19.47	20.03	20.20	20.08	20.24	20.39
20.21#	-	20.48#	21.08	21.24	21.39
20.47	21.03	21.20	22.07#	-	22.32#
21.47	22.03	22.20	22.38	22.54	23.09

* Asteegunetan bakarrik #Ez da Usurbilen geratzen
 Harremanetarako: 902 54 32 10 / www.euskotren.es

Eguneko goardiako farmaziak

- Urriak 20, osteguna**
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte
- Urriak 21, ostirala**
De Miguel, Nagusia32 Lasarte
- Urriak 22, larunbata**
Iturralde, Bordaberri 1 Usurbil
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte
- Urriak 23, igandea**
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte
- Urriak 24, astelehena**
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte
- Urriak 25, asteartea**
Gil, Nagusia 24 Lasarte
- Urriak 26, asteazkena**
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte
- Urriak 27, osteguna**
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte
- Urriak 28, ostirala**
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte
- Urriak 29, larunbata**
Oa Kontzeju Zaharra 11 Usurbil
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte
- Urriak 30, igandea**
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte
- Urriak 31, astelehena**
De Miguel, Nagusia32 Lasarte
- Azaroak 1, asteartea**
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte
- Azaroak 2, asteazkena**
Gil, Nagusia 24 Lasarte
- Azaroak 3, osteguna**
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte
- Azaroak 4, ostirala**
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte
- Azaroak 5, larunbata**
Iturralde, Bordaberri 1 Usurbil
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte
- Azaroak 6, igandea**
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

GAUEKO GOARDIAKO FARMAZIAK
 Urte osoan, gaueko goardiako farmazia guztiak Hernanin egingo dira.
 Maria Jose Chucla, Kardaberaz Kalea 48, Hernani (943 55 17 93).

2005eko egutegi osoa noaua.com helbidean

Zubieta-Donostia TST autobusak

- ASTEGUNETAN**
Zubieta-Donostia
7:55*/ 9:30(T) / 13:15(T) / 14:35*(T) / 19:15(T)
Donostia-Zubieta (Gipuzkoa plazaatik)
7:15* / 9:00 / 12:45(T) / 13:45* / 18:45
- LARUNBATETAN**
Zubieta-Donostia
8:15(T) / 12:45 / 15:15(T) / 21:35(T)
Donostia-Zubieta (Gipuzkoa plazaatik)
12:15(T) / 14:30(T) / 21:00(T)
- JAI EGUNETAN**
Zubieta-Donostia
11:25(T) / 13:30(T) / 15:30(T) / 21:35 (T)
Donostia-Zubieta (Gipuzkoa plazaatik)
11:00(T) / 13:00(T) / 15:00(T) / 21:00 (T)

* Eskola egunetan.
 T Autobus aldaketa beharrezkoa da. 943 361740.

Datorren NOAUA!

Azaroa						
As.	Ar.	At.	Os.	Ori.	La.	Ig.
	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30	31			

Hurrengo alea ●

Bai esan?

- Udala..... 37 19 51
- Udaltzaingoa..... 36 11 12
- Obrak eta Zerbitzuak..... 37 01 48
- Anbulategia..... 36 20 13
- Udaregi ikastola..... 36 12 16
- Udaregi (Agerialde)..... 36 38 95
- Oiardo kiroldegia..... 37 24 98
- Zumarte..... 37 15 94
- Etumeta..... 37 20 01
- Taxi geltokia..... 36 21 78
- D.Y.A..... 46 46 22
- Ertzantza..... 112
- Suhiltzaileak..... 112
- Larrialdiak..... 112
- Anbulantziak..... 112
- Gure Pakea..... 37 32 28
- Gure Elkarte..... 37 17 51
- Arrate Egoitza..... 36 63 40
- Eusko Tren..... 47 09 76
- Noaua! aldizkaria..... 36 03 21
- Bake epaitegia..... 37 23 36
- Oa farmazia..... 37 60 76
- Iturralde farmazia..... 36 33 95
- Zubietako Batzarra..... 37 20 77
- Argindarra (Iberduero)..... 47 09 76

Oharrak !

ETXEBIZITZA

- Usurbilgo bikote gazte batek pisua alokatu nahiko luke Usurbilen. 679 185 102.
- Usurbilen pisua bat alokairuan hartuko nuke. Tel: 630 032 779.

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Lokal bat daukagu alokairuan 70m2koa. Interesatuak deitu 943 372 034 telefonora.
- Garaje itxi bat salgai daukagu Erreka Txiki Kalean. Interesatuak deitu: 676636038.
- Autokarabana salgai, 4-5 pertsonentzat. Ford Transit 2.5D Riviera. Ongi zaindua (nagusia mekanikoa da eta garajea lo egiten du). 13.000 euro. Tlfnoa. 653714970.
- Garaje bat daukat alokairuan jartzeko Kale Nagusian (Bizkarreko etxeetan) 240 eurotan. 100m2takoa da eta kotxea erraz sartzen da. 943 458 284.
- Aparkalekuak salgai Bizkarra 1-8 etxe taldean, Kale Nagusia 3. 607 905 859 (Imanol).
- Honda Dominator 650 cc motorra egoera oso onean. 667 172 010 (Jon).
- Garaje itxi bat alokatzen da Kale Nagusian. Interesatuak: 943 361 235.
- Chrysler Voyager 2.0 salgai. 8 urte. 133.000 km. Oso kondizio honetan. Beti garajea. Kristalak tintatuak. Aluminiozko llantak. Haurrentzako eserleku berezia. Bola. Gurpilak berriak. 4.500 euro (negoziagarriak). Tf: 667055553.

LANPOSTUAK

Lan-eskaerak

- Emakume bat eskaintzen da pertsona helduak zaindu edo etxeko lanak egiteko. 943 36 57 37.
- Lan egiteko gogoia daukat. Kanpotarra naiz eta edozein lan egingo nuke: portalak garbitu, plantxa egin, kanguro lanak astebukaeratan, pertsona helduekin, fregaderako lanak... 677 552 258 (Sharon).
- Kamarera euskaldun bat eskaintzen da astelehentik ostiralera lan egiteko. Telefonoa: 667 694 469.
- Emakume bat eskaintzen da astelehentik ostiralera, pertsona helduak edo ezinduek zaintzeko. Horrelako lanetan aritua. 626 641 155 Mariaje.
- Taberna batean egingo nuke lan edo

antzeko zerbaitetan. 652 757 495.

- Portalak eta eskailerak garbitzeko neska bat eskaintzen da. Esperientzia horrelako lanetan. Interesatuak deitu (690 784 113).
- Oporretako, ospakizunetako, edozein motatako bideoak montatzen dituen profesionala eskaintzen da. 943555835/ 617242660.

Lan-eskaintzak

- Emakume euskaldun bat bilatzen ari gara etxeko lanak egiteko eta haur bat zaintzeko. Ordutegia eta baldintzak adosteko. 943 376 688 (Urbilen ondoan).
- Pertsona bat behar da 4 eta 7 urteko umeak zaintzeko. 943372224 Kristina (gauean deitu).
- Arratsaldeta umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko pertsona bat behar dugu. Interesatuak deitu: 943361991.
- Emakume euskaldun bat behar dugu irailetik aurrera lanean hasteko. Goizeko 10:30tatik 14:30tara etxeko lanak egin eta haurrak zaintzeko. 662145584.
- Orioko ileapaindegi batean estetizista bat behar da. Interesatuak deitu 943832729.

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Emuak salgai. Bi emu, arra eta emea modu onean saltzen dira. Interesatuak 657633461 telefonora deitu.
- Trailerra saltzen da lanarekin. Interesatuak deitu 649 85 01 31.
- Itsasoan arrantzan egiteko kainabera behar dut. Ahal bada teleskopikoa. Zurea erabiltzen ez baduzu, doan edo merke antzean emateko prest bazaude, gustura hartuko nuke. Tel: 676374812.
- Peugeot 306 Break salgai. 2000-HDI. Matrikula, BPF (2001 azaroa). Garajea egon da beti. Prezioa: 9.000 euro. Telefonoa: 636 36 49 42.
- Baldintza onetan dagoen 49cc dituen moto Honda bat daukat salgai. 943 36 45 54.
- Bideokamera bat saltzen dut, Canon XL1 semiprofesionala, bateria eta tripodeta barne. Gutxi erabilia. 943 376 902 / 665 749 615 gauzez.
- Kanping-karroa salgai, aluminiozko panelarekin. Karabana bihurtzen da. Telefonoa: 943 55 18 32.
- Pago egur txikitua eta lehorra salgai. Etxera eramaten da. Tf. 615 755 762.

Txerrimunik ordainetan !

Zorionak Aitor!
Urriaren 17an Aitorrek bi urte bete zituen. Pixkanaka handituz doan etxeko txikiari zorionak eta muxu handi bat!



Zorionak Aritz eta Eneko!

Urriaren 22an Aritzek eta azaroaren 5ean Enekok, 8 urte betetzen dituzte biek. Zorionak gure judokei etxeko guztien partez eta muxu handi bat!



Zorionak bikote!

Urriaren 12an zuen urrezko ezteiak ospatu genituen. Horrenbestez zorionak bioi zuen familia osoaren partez! Muxu goxoak zuentzat!



Zorionak Ainara!

Urriaren 26an guapaguapa jarri ta ea zerbait hartzera gonbidatzen gaituzun.... A, tarta zure kontu! Muxu handi bat etxekoan partez.



JAIOTZAK

- Xabier Ikutza Bengoetxea, urriaren 2an.
- Marene Sasiain Ortunez, urriaren 3an.
- Itsaso Sasiain Bastida, urriaren 8an.

* Bake Epaitegitik jasotako informazioa.

Oharrak - Txerrimunik ordainetan doaneko atalak dira

Datorren alea azaroaren 4an argitaratuko dugu. Zorion-agurrak urriaren 28a baino lehen ekarri edo bidali.

Agenda !

Urriak 23, igandea

- "Elkartasuna, Etorkizuna" Jaia Basaurin.
 - Eskubide zibil eta politikoen aldeko Kaiera ibiltaria. 12:00etan, Hernaniko Plaza Berrin.


Urriak 28, ostirala

- Organo kontzertua Salvatore Parrokian, iluntzeko 20:00etan. Sarrera, doan.

Urriak 29, larunbata

- EHNAren tramitazioa udaletxe aurrean (11:00-13:00). Beharrezkoak: bi argazki, errolda agiria eta 15 euro. Adingabeok, famili liburuaren fotokopia.

Soluzioa !

	⊕	M	⊕	A	⊕	A	⊕	O	⊕
	M	I	N	B	E	R	A	T	U
	⊕	T	⊕	E	Z	T	I	A	K
⊕	E	⊕	A	X	U	R	I	A	⊕
	I	R	U	D	I	M	E	N	T
	⊕	A	G	U	R	E	A	⊕	U
	U	S	A	R	R	A	⊕	E	⊕
	⊕	O	R	R	I	⊕	A	Z	T
	K	A	T	A	K	U	M	E	A
	⊕	K	E	⊕	A	G	U	R	R
									R

Soluzioa: Ugarte

Literaturaren txokoa !



"Ametz", basamortuan girotutako narrazioa

Iker Yurrebaso Igorreko gazteak idatzi berri duen aurreneko narrazio liburua da hauxe.



"Zantzoa" literatur taldeko kide izandakoa da Yurrebaso, bost aldizkari argitaratu zituena eta hainbat errezital eskaini. Hamahiru geldialdiz osatutako bidaia proposatzen digu, basamortuan zehar.

Maite Yurrebasoren irudiz lagundurik, idazkera ausarta darabil Iker Yurrebasok, zuzena, ikutu magiko eta fantastikoduna.

Zertu Kultur Elkarte eta Lemoako Gazte Asanbladaren artean burututako argitalpena da "Ametz". Zertu Kultur Elkarteak "Begitu", Arratia, Ubide eta Zeberioiko euskarazko aldizkaria kalera-tu eta euskal kulturaren inguruko ekimenak sustatzen ditu.

Egin kontu !

Txokoaldeko Erroizpe elkarteak mus txapelketa eta mendi martxa antolatu ditu

Mus txapelketa urriaren 22an jokatu da, larunbatez. Izena aldeztatik eman behar da: larunbatean bertan, 16:00-16:30 bitartean, Erroizpe elkartearen.

Bikote bakoitzak ordaindu beharrezkoa, 20 euro. Hori bai, sariak, kategorikoak: irabazleentzat, txapela, arku-mea eta txanpaina. Bigarren amaitzen duen bikoteak mariskada eta txanpaina jasoko ditu. Hirugarren bikotearentzat, lau txuleta eta ardoa. Laugarren bikotearentzat, aldiz, lau kilo kostilla

eta ardoa.

Mus txapelketa urriaren 22an izango da. Biharamunean, urriaren 23an igandea, mendi martxa abiatuko dira Erroizpe elkarteak. Irteera ordua, 8:00etan. Noski, elkartetik abiatuko da ibilaldia. Lau ordu ingurukoa izango da. Ondoren, hamaiketakoa.

Erroizpe elkarteak hau guztia antolatzen lagundu dutenei eskerrak eman nahi dizkie: Usurbilgo Udala, Euskadiko Kutxa, Arruti harategia, Ramon Kamino, Akerra gaztetxea.


GLG
garraioak
 ZABOR BILÆET
 TELF: 943 37 01 46

LOU IZARRALDE ilecapaindegi mixtoa
 Permanente inteligentea, rizoen kiribilketa kontrolatuarekin.
 Solarium-a, estetika, depilazioa, manikura, manikura frantsesa, pedikura, eta makilajea.
 Zubimenez, 5b Telf: 943 36 19 71

ALBISTEAK EDIZIO JARRAITUAN ALDIZKARIA ON LINE INKERTAK FORDUAK PORTA
www.noaua.com
 USURBILGO ATARIA

JUANTXO BURDINDEGIA

 KALE Nagusia 10
 943 370 000
 48100 BILBAO



GONZALEZ
EHORZTETXEA



- Zerbitzu azkarra eta etengabea (24 ordu)
- Zerbitzua Usurbilgo tanatorio berrian
 - Zerbitzua tanatorio guztietan
- Lekualdaketa nazionalak eta internazionalak
- Behar diren izapide guztiak egiten ditugu
- Zerbitzua zahar-egoitza eta ospitaletan
 - Aseguru konpainia eta aseguratu guztiakin egiten dugu lan
 - Lore-koroak, eskelak, hilarriak
 - Konpromiso gabeko aurrekontuak
- Hil-automobila eta hil-furgoneta zerbitzua

Munalurra, 8 Bajo
20170 Usurbil

Telefona: 943 36 21 63
Mugikorrak: 608 16 77 92
660 38 86 52

URTINEA

Loratogia



Egun ososa zehar zabalik!

Santu Guztien Egunean erramuak, zentruak, koroak eta landaretan aukera zabala hemen aurkituko duzu.

San Esteban auzoa

☎943 362 255 Fax:943 366 054
E-mail:urtinea@euskalnet.net



autonomoentzako eta mikroenpresetarako
doako **mintegiak**

Donostialdea
urriak 27
HERNANI
Hernani Institutua
(Karmelo Labaka)

Ordutegia:
18:00-20:00

Bilatu eta aurkitu: Nola bilatu Interneten?

Informazio-iturri itzela da Internet, baina nola bilatzen da **enpresarako erabilgarri izan daitekeen informazioa?** **Bezeroei, hornitzaileei, eskariei eta eskaintzei buruzko informazioa, gure lehlakideen jardueren buruzkoak, dauden dirulaguntzak eta horiei buruzko informazioa...** ezagutzea gure **negoziorako mesedegarri izan daiteke.**

Informatzeko eta izena emateko:
943 747 314
www.miramondigital.com
cursos@miramondigital.com

Sustatzaileak:



Gipuzkoako Foru Aldundia
Departamentu Berriak eta Enpresak



Ambolatrakoa:



Miramón
Enpresa Digitala

gremioen gida

igeltseritza

JOSE AIZPURUA
UNANUE



Pintore k.1-3A Obuba k.29
Lasarte-Oria Astasu
943 36 17 83 943 696852

URDANTZI

943 361 439
649 435 475
649 435 476

ERRAZKIN

943 372 679
943 365 125
629 420 565
649 435 470

urki-mitxe@eusklanet.net

JOSUE
ARANZAZISTROKI

Juan Jose enea 6
Kalezar
943 360 550
606 372 105

aroztegiak



J. R. IBARGOEN
ZURGINTZA-SUKALDEAK
ALTZARI BEREZIAK
Tfnoa. 943 361 448
Faxa 943 366 945
Osinalde Industrialdea
Errotuberri 11

ANTONIO
URRUZOLA

Tfnoa. 943 362 664
Faxa 943 374 002

Astoasuain Industrialdea 3

BEREZIARTUA
S.L.

egurra eta
egurra-aluminiozko
lehoak - eskailerak
Aginaga 943 371 571

BARRENETXE

Salsamendi, Arcoi Inaroi

tfnoa. 943 362 664
faxa 943 374 002

Barren Etxe kalea
ZUBIETA

iturgintza

JOSETXO
IKATZETA



687 951 225

LATAILLADE



gasa, berogintza
klimatizazioak eta
manienimendua
609 888 021

PORTULARRUME

banuko altzairuak
manparak

943 364 637

JOSEBA
ARANGUREN

943 830 072
659 883 912

iturgintza

JAVIER ORBEGOZO



gasa - berokuntza

659 602 789
Enrika Txiki 13, 3. esk

pinturak

andoni
MARCOAS

605 702 517

Arantzale p. 8-2º

RAMON
BARCENILLA

papereztatzea
gotele
pikor pintura...
629 460 966

FERNANDO
FINTURAK

enpapelaketak
lurzoruak...

943 366 019

eskaioiak

EUGENIO
NORIEGA

pladurra
teilatu modularrak
dekorazioak

943 365 665
616 926 025
Erdiko kalca 12

elektzitate

IZAGUIRRE

943 365 095
609 068 111

Goiz Argi etxea 37
Kalezar

ARGILAN

Jose Luis Borda Zugasti
industria instalazioak
konponketak

943 361 380
629 272 859
Bordaberri 5 behe

gida honetan azaldu nahi baduzu: 943 360 321

"publizitatea@noava.com"